

BESTELAKO XEDAPENAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

4935

EBAZPENA, 2024ko urriaren 11koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez «Donostialdeko Metroaren eraikuntza-proiektua. Altza-Galtzaraborda tartea» proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendatik 005, 006, 007 eta 028 finkak baztertzen baitira eta amaitutzat eman baita finken titularrekin egindako desjabetze-espeditentea.

2021eko apirilaren 12an, Garraio Azpiegituren zuzendariaren ebazpenaren bidez, «Donostialdeko Metroaren eraikuntza-proiektua. Altza-Galtzaraborda tartea» proiektua onartu zen.

2021eko apirilaren 20ko Ebazpenaren bidez, proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko prozedura hastea erabaki zen, eta desjabetzeen eranskineko zerrenda jendaurrera atera zen. Proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda 2021eko uztailaren 30eko Ebazpenaren bidez onartu zen.

Eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendan, besteak beste, hurrengo finkak agertzen dira:

– Finka zk. 005. Titularra Donostiako Udala eta Lorete Bidea kaleko 6, 8, 10, 12 eta 14 Bis zenbakietako Jabekideen Erkidegoak dira. Afekzio mota: erabateko desjabetzea 88 m², zortasun iraunkorra 12 m², aldi baterako okupazioa 23 m².

– Finka zk. 006. Titularra Daniel Civantos Calzada eta Monica Echenique Valdivieso dira. Afekzio mota: erabateko desjabetzea 204 m², zortasun iraunkorra 6 m², aldi baterako okupazioa 14 m².

– Finka zk. 007. Titularrak Lorete Bidea kaleko 6, 8, 10, 12 eta 14 Bis zenbakietako Jabekideen Erkidegoak dira. Afekzio mota: erabateko desjabetzea 4 m², zortasun iraunkorra 0,55 m², aldi baterako okupazioa 2 m².

– Finka zk. 028. Titularrak Lorete Bidea kaleko 18, 20, 22, 24 eta 26 zenbakietako Jabekideen Erkidegoak dira. Afekzio mota: erabateko desjabetzea 76 m², zortasun iraunkorra 63 m², aldi baterako okupazioa 86 m².

2021eko irailaren 21ean, okupazioaren aurreko akta egin zen Donostiako udaletxean.

Obrak egin bitartean, premia berriak sortu dira, eta, ondorioz, beharrezkoa izan da kontratuaren oinarritzko proiektuan agertzen ez diren irtenbide teknikoetara jotzea.

Oinarritzko proiektuaren preskripzioei dagokienez obran gertatzen diren aldaketak, «Donostialdeko metroaren obraren 2. proiektu aldatua. Altza-Galtzaraborda tartea» idaztea justifikatu zutenak hauek dira:

- Galtzarabordako geltokia berritzeko proiektuarekin integratzea.
- Loreteko larrialdiko aireztapena aldatzea.
- Molinaoko Regaran hormak aldatzea.
- Galtzarabordako trenbide-konexioa aldatzea eta definitzea, etorkizunean Errenteriako saihezbidea egiteko.
- Pasaiaiko geltokiko larrialdi-irteera aldatzea.
- Neurketa eguneratzea.

2024ko urriaren 28a, astelehena

«Donostialdeko Metroaren eraikuntza-proiektua. Altza-Galtzaraborda tartea» proiektuan egin beharreko aldaketak egin ondoren, Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2024ko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez, «Donostialdeko metroaren obraren 2. proiektu aldatua. Altza-Galtzaraborda tartea» onartu da. Proiektua gauzatzeko ardura duen zerbitzuaren txostenaren arabera, aldatutako proiektuak ez ditu zehazten 005, 006, 007 eta 028 finken afekzioak.

Beraz, obra gauzatzeko aipatutako finkaren afekzioak beharrezkoak ez direnez, hau

EBAZTEN DUT:

«Donostialdeko Metroaren eraikuntza-proiektua. Altza-Galtzaraborda tartea» proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendatik 005, 006, 007 eta 028 finkak baztertzea eta amaitutzat ematea eta horien titularrekin desjabetze-espedientea amaitutzat ematea.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaiokete Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsua jartzeko idazkia organo honi edo Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeari zuzendu behar zaio.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 11.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.